

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

337

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 22koa, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariarena, Herrizaingoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 30eko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzei Euskal Autonomia Erkidegoko 2012rako Aurrekontu Orokorretan emandako dotazioa iragartzen duena. Izan ere, Agindu horrek Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen du.

Herrizaingoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 30eko Aginduak (2011ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zenbakia) Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen du.

Finantziazio eta aurrekontu-egozteari buruzko Xedapen Gehigarrian, hauxe dago jasota: «Publizitate-printzipioa betetzeko asmoz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren ebazpenez argitara emango da, aurrekontu ekitaldi bakoitzaren hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako emandako dotazioa»

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrek onetsi zituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean 542.000 euroko partida zuzendu da diru-laguntza horiek finantzatzeko, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren kontura, eta ondoren adierazten da aurrekontuko partidaren xehetasuna: 12.0.1.02 04.0000.1.453.01.22110.001.U

Horren indarrez,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Publizitate-printzipioa betetzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrek onetsi zituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean adierazi denez, 542.000 euroko partida zuzendu da 2011ko maiatzaren 30eko Aginduak aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Herrizaingoko sailburuari, ebazpen hau EHAA-n argitaratzen denetik hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluek ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 22a.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria,
MARIOLA SERRANO ARGÜESO.